

Olaizola eta Goñi, inork espero ez zuena egin, eta galtzekorik ezer ez duenaren patxadaz

E. Telleria | DONOSTIA

Konfiantzaz, lasai eta ideiak garbi dituztela agertu ziren Olaizola I.a eta Goñi III.a prentsaurrean, pilota aukeraketa bukatutakoan. Kontrarioak loratu zituzten, bikote «sendoa eta osoa» dela nabarmendu zuen Asier Olaizolak, baina eurak ere sasoi bolada bikainean daudela eta «lan asko» egin beharko dutela kontrarioek, partidua aurrera ateratzeko. «Errebotetik hurbilen zein atzelari ariko den, hori izango da partiduko gakoa. Nork duen aukera lehen pilotazo luzea emateko», lagundu zion Fernando Goñik.

Labriten elkarren kontra jokatutako partidua izan zuten noski mintzagai. «Partidu hark erakutsi zuen Alustiza eta Belokiri irabaztea posible dela», na-

barmendu zuen Olaizolak. Goñi lagunak, horren haritik, kazetariak kritikatu zituen, «beti hiru edo lau izen goratzeagatik».

Belokiren inguruan aritu ziren batik bat. Olaizolak ez zuen haren orain arteko lana gutxietsi, baina hausnarketarako beta hartu zuen: «Labriteko partiduari buruz esan da, beraiek gaizki aritu zirela. Ikusi behar da nondik aritu zen jokatzeko Beloki partidua hartan: sei-zazpi koa-drotik. Ordu arte, berriz, laubostetik». Maesku enpresarekin hasi aurretik azkeneko partidua izango du Olaizolak igandeko hori, eta Asperekin «txapela buruan» amaitu nahi lukela zioen. Goñik esan zuen, «gozatu» egin nahi duela finalean.

Zubiritik 100 bat lagun joango dira finalera. Goizuetatik 150 inguru.



Asier Olaizola eta Fernando Goñi, otarretik pilotak hartzen, atzo.

ASIER OLAIZOLA

Aspeko aurrelaria

«Labritekoak erakutsi zuen Alustiza eta Belokiri irabaztea posible dela. Guri irabazteko ere lan asko egin beharko dute»

FERNANDO GOÑI

Aspeko atzelaria

«Errebotetik hurbilen zein atzelari ariko den, hori da partiduko gakoa. Nork duen aukera lehen pilotakada luzea»

Zuhur Alustiza eta Beloki, finalaz elkarrekin gozatu beharra nabarmenduz

E. Telleria | DONOSTIA

Dirua, iragarpen gehienak, jakintsuenen analisiak, ia guztia alde dute Alustiza-Belokik igandeko. Atzo, ordea, zuhur mintzatu ziren biak, eta Labriten gertatutakoa hartu zuten haiek ere erreferentzia gisa.

Lasai eta irribarrea ezpainetan sartu zen Alustiza prentsa aretora. Oharra lehenengo, txantxetan: «Heldu den urtean ere Rubenekin jartzen banaute finalean ariko ginatke». 39 urte ditu segurarrak, «adin serioa» dela esan zuen, eta ez daudela asko urte horiekin finalera iritsitakoak. «Gozatu» egin behar dutela nabarmendu zuen horregatik, eta Beloki laguna hartu zuen horretarako hizpide. «Berak ongi jokatzen badu, nik ere egingo dut pilotan. Asier Olaizola eta Titin pilotari ezberdi-

nak dira gainera», ohartarazi zuen hurrena. Belokiren itzalean ari dela iradoki zioten. Alustiza garbi mintzatu zen: «Egia esan behar da. Bera da gure bikotearen pisu osoa daramana eta bere jokora moldatzen naiz ni. Ez dit axola haren itzalean aritzeak, titular guztiak berak eramateak».

Jaso zituen Belokik loreak, eta ez zen bera ere atzera gelditu: «Martin Alustiza da urte hauetan guztietan izan dudana lagunik onena». Igandekoa, partidua «oso gogorra» izango dela ere iragarri zuen, «elkar apurtzen saiatuko garelako, bai Asier eta bai ni». Kontrarioen sasoiak ikusita, finalera «umiltasunez» joan beharra azpimarratu zuen hark: «Behin irabazi digute, badakite nola min egin». Finaletako presioaren eta giroaren garrantziaz ere aritu zen.



Belokik eta Alustizak ere ez zuten arazorik izan nahi zutena topatzeko.

MARTIN ALUSTIZA

Asegarceko aurrelaria

«Rubenek ongi jokatzen badu nik ere egingo dut pilotan. Asier Olaizola eta Titin, gainera, pilotari ezberdinak dira»

RUBEN BELOKI

Asegarceko atzelaria

«Umiltasunez joan behar dugu finalera. Irabazi digute behin, badakite nola min eman. Finalak, hala ere, ezberdinak dira»

TXOKOAN

ESKU-HUSKA

Titin ariko da Goñiren tokian Arrigorriagan, Ibilaldiaren aldeko jaialdian

Bizkaiko Abusu Ikastola arduratuko da aurtengo Ibilaldiaren antolakuntzak, eta pilota jaialdi ikusgarria antolatuko du horren karian, gaurko, Arrigorriagan (22:30, ETB1). Azken orduko aldaketan ostean, Eugi-Imaz eta Titin-Elkoro ariko dira estelarrean. Mikel Goñi aritu behar zen hasiera batean Elkororekin, baina zaintiratua izan zuen atzoko entrenamenduan eta Titin jarri dute haren tokian. Imazek, aurreneko partidua du duela hiru aste meniskoan artroskopia egin ostean.

PALA

Garcia anaiak nagusitu ziren atzo Deportivon

Binakako Txapelketako lehen itzuliko partidua galdu egin zuten Daniel eta Juan Pablo Garcia anaiek Urkia eta Rekalderen kontra (39-40). Horregatik zen horren garrantzitsua atzokoa irabaztea, eta egungo txapeldunek lortu zuten euren helburua (40-37). Ondoren, txapelketako beste partiduan, Insausti eta Garma nagusi erraz Iriondo eta Beldarrai-ekin (40-28).

JAIALDIK

GAURKO PARTIDUAK GALARRETA.

Zeberio III.a-Reklusa 35; Ziganda-Urko 24. Ezkurra-Urreta II.a 17; Altuna II.a-Iriarte 40. Zeberio II.a-Aizpuru 39; Matxin-Lizaso 40. Kalonge-Etxebe II.a 30; Sarasua-Imaz 19.

DEPORTIVO.

2. Mailako Txapelketa: Zeberio-Ibarra 35; Urkijo-Agirre 33. Lehen Mailakoa (bi partidua): Daniel-Juan Pablo 40; Urkia-Rekalde 37. Insausti-Garma 40; Iriondo-Beldarrai 28.

GAURKO PARTIDUAK

ARRIGORRIAGA. 22:30 (ETB1).

Ibilaldia 2001en aldeko jaialdia.

Berasaluze VII.a-Milikua / Badiola-Jaio. Eugi-Imaz (berragerpena) / Titin-Elkoro.

WWW.DAEWOO MOTOR.ES
INFODAEWOO: 902 303 900

DAEWOO LANOS PLUS

Sartu zaitez Lanos batean eta inork aurkituko ez zaituen tokiraino iritsiko zara.
SERIE BEREZIA: SERIEKO AIRE EGOKITUAREKIN.



1.415.000*PEZETATIK AURRERA

*Penintsula eta Balearretarako gomendatutako salneurria, Lanos Plus 1.4 SE 3P (BEZ, matrikulazio zergak eta Garraioa barne). Stockean dauden ibilgailuentzako promozioa. Ezingo da beste eskaintzekin bildu. Prever Plana barne.

DAEWOO
Lanos
GEHIGAGO EMATEN DIZUGU

egin ihes

KONTZESIONARIO OFIZIALA:

TURISMOS

BOLUETA, S.A.

Bilbao-Galdakao errep. 28
48004 Bilbo
Tel.: 94 473 36 48
(Erakusketa eta Tailerra)